BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3961

EBAZPENA, 2014ko irailaren 15ekoa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariarena, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (686/2014-M Lege Babesa) interesdun izan litezkeenei deitzeko dena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (686/2014-M Lege Babesa) 2014ko otsailaren 25eko Ebazpenaren kontra jarritakoa da. Ebazpen horren bitartez, Toki Poliziako Bitarteko Agenteen lan-poltsa bat (Oinarrizko eskala eta C-2 Sailkatze Taldea) sortzeko hautaketa-prozedurarako deia egiten duena, kidego hartan aldi baterako jarduteko. Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epean ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2014ko irailaren 15a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.